BASAURIKO UDALERAKO ITZULPEN-, ZUZENKETA-, EDUKITZA- ETA INTERPRETAZIO-ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

EZAUGARRIEN TAULA

KONTRATU MOTA:	Zerbitzu-kontratua
PROZEDURA / SKPL artikulua:	156
IZAPIDETZEA:	Prozedura irekia
ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE:	EZ
ERREKURTSO BEREZIA:	EZ
ESPEDIENTEA:	64/26
KONTRATAZIO-ORGANOA:	Alkatetza

A) KONTRATUAREN XEDEA. KONTRATU MOTA. NOMENKLATURA. KONTRATUA GAUZATZEKO LEKUA. LOTEETAN BANATZEA.

A.1) KONTRATUAREN XEDEA.

Basauriko Udalari itzulpen-, zuzenketa-, edukitza- eta interpretazio-zerbitzua ematea da kontratu honen xedea.

Hori guztia PPTn ezarritakoaren arabera.

CPV nomenklaturaren kodea: 79530000-8 "Itzulpen-zerbitzuak".

A.2.) LOTEETAN BANATZEA. EZ

Espedientean jasota dagoen bezala, zatiketa ez da posible, funtsezkoa baita testu eta interpretazio-saio guztiek estilo berari eustea, eta homogeneoak eta elkarren artean koherenteak izatea. Sail sustatzaileak adierazi duenez, kontratuaren xedea hainbat lotetan sailkatuko balitz, itzuli beharreko testuak eta interpretazio-saioak, enpresa bat baino gehiago kontratatuko lirateke, eta Udalak berak gainbegiratze teknikoa egin beharko luke a posteriori, itzulpen- eta interpretazio-lanak koordinatzeko eta testuei eta aldibereko itzulpenei estilo eta homogeneotasun bera emateko. Horrek, kontratua behar bezala gauzatzea zaildu egingo luke, ikuspegi teknikotik. Beraz, lanak lotetan ez banatzeak erakundearen hizkuntza-estandarrei eustea ahalbidetuko du, eta, beraz, zerbitzuaren kalitatea bermatzea.

Gainera, kontratuaren bi alderdi posibleak — idatzizko eta ahozko itzulpena — estu-estu lotuta daude.

A.3.) KONTRATUAREN XEDE DIREN PRESTAZIOAK GAUZATZEKO, ENTREGATZEKO EDO GAUZATZEKO LEKUA. Ikastetxeak.

A.4.) KONTRATUAREN ARDURADUNA: Euskara-teknikaria (Patricia de Jorge).

A.5) LIZITAZIO ELEKTRONIKOA: BAI.

B.1) LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA. UNITATEKO

PREZIOA. KONTRATUAREN EPEA.

B.1) AURREKONTUA: 27.000,00 euro + 5.670,00 euro (BEZ): 32.670,00 euro.

LIZITAZIO-PREZIOA:

Itzulpen-, zuzenketa- eta edukitze-zerbitzuak:
Itzulpen arruntak: 0,14 € hitza + % 21eko BEZa.
Premiazko itzulpenak: 0,17 € hitzeko + % 21eko BEZa.
Zuzenketa eta edukitze arruntak: 0,09 € hitza + % 21 BEZ.
Presako zuzenketak eta edukitzeak: 0,11 € hitzeko + % 21eko BEZa.
Interpretazio-zerbitzuak:
Gehienez 2 orduko saioak (saio laburra): 420 € + % 21eko BEZa.
2-4 orduko saioak (lanaldi erdia): 540 € + % 21eko BEZa.
4-7 orduko saioak (lanaldi osoa): 640 € + % 21eko BEZa.

Kontratuan aurreikusitakoez gain, benetan gauzatutako unitateen kopurua gehitu ahal izango da, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa ez bada (SPKLren 309. artikulua) eta ez dira aldaketatzat hartuko.

SPKLren 100.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, hona hemen aurrekontuaren urteko banakapena:

Langile-kostuak eta zuzeneko kostuak 22.950,00 €
Zeharkako kostuak: 2.525,00 €
Mozkin industriala (% 6) 1.525,00 €
BEZa (% 21) 5.670,00 €
GUZTIRA 32.670,00

B.2) BALIO ZENBATETSIA: 27.000,00 euro + 27.000 euro (I. luzapena) + 27.000 euro (II. luzapena) + 8.100,00 euro (% 10): 89.100,00 euro.

B.3) KONTRATUAREN EPEA: Kontratuak URTEBETEKO iraupena izango du, 2026ko azaroaren 1ean hasita, edo formalizazio-datan hasita, formalizazioa geroagokoa bada. Urtebeteko bi luzapen egiteko aukera ezartzen da. Kontratazio-organoak erabakiko ditu luzapenak, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago jakinarazten bada.

B) **FINANTZAKETA:** Baliabide propioekin

ZENBATEKOA	AURREKONTU-APLIKAZIOA
2026: 5.445,00 euros	071 3351 22798
2027: 27.225,00 euros	

D) **PREZIOAK BERRIKUSTEA** Ez

E) **ADJUDIKAZIO-PROZEDURARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontratatzailearen profilera sartzeko, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilaren bitartez egingo da (Basauriko Udaleko Kontratatzailearen Profilaren bitartez ere sartu ahal izango da).

- Kontratazio elektronikoari buruzko kontsultak; EUSKO JAURLARITZAKO ERABILTZAILEAREN LAGUNTZA-ZENTROA (ELZ). Tel.-zk.: 945016298. Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

Kontratazio-organoari dagokion zerbitzua: Kontratazioa eta Zerbitzuak
Tel.-zk.: 944.666.309
Helbide elektronikoa: kontratazioa@basauri.eus

F) **ESKA DAITEKEEN ENPRESA LIZITATZAILEAREN FINANTZA- ETA EKONOMIA-KAUDIMENA ETA GAITASUN TEKNIKO EDO PROFESIONALA EDO ENPRESA-GAIKUNTZA EDO GAIKUNTZA PROFESIONALA**:

F.1) **Ekonomia- eta finantza-kaudimena**. Lizitatzaileek ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatu beharko dute; horretarako, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokion urteko negozio-bolumena aurkeztu beharko dute, gutxieneko zenbatekoa 133.650,00 euro (BEZik gabe) izanik.

Onartutako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuen bitartez egiaztatuko da, enpresaburua erregistro horretan jasota badago, edo, bestela, jasota egon behar den erregistro ofizialean aurkeztutako kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan jaso gabe dauden banakako enpresaburuek negozioen urteko bolumena egiaztatzeko Merkataritza Erregistroak legeztatutako urteko kontuak eta inbentario liburuak aurkeztu beharko dituzte. Beste figura batzuen kasuan, legedi zehatzaren arabera egiaztatu beharko dituzte kontuak.

Nolanahi ere, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE edo REVASCON) inskribatzeak egiaztatuko ditu, sektore publikoko kontratazio-organo guztien aurrean, enpresaburuaren ekonomia- eta finantza-kaudimenaren baldintzak, bertan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatzen ez den bitartean.

F.2) **Gaitasun tekniko edo profesionala**

Azken hiru urteetatik betearazpen handieneko urtean egindako antzeko zerbitzuen edo zerbitzu berdinen zerrenda aurkeztu behar da, urte horretako metatutako urteko zenbatekoa 18.900,00 euro (BEZik gabe) edo gehiago izanik.

Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bitartez egiaztatuko dira egindako zerbitzu edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, hark egindako ziurtagiri baten bitartez, edo, horrelako ziurtagirik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bitartez.

Kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duen enpresa bat, kaudimen teknikoa SPKLren 90.1.e) artikuluak ezarritakoaren arabera egiaztatuko da.

G) **ALDAERAK** Ez

H) **ADMINISTRAZIOAREN ERREGISTRO NAGUSIAREN HELBIDEA**

Karega Goikoa 52. 48970 BASAURI (BIZKAIA)

I) **ESKABIDEAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA, AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, ETA HORIEK AURKEZTEKO TOKIA**

Epemuga: 2026ko irailaren 8a, 18:00ak (penintsulako ordua).

Gomendioa: Azken uneko arazo teknikoak saihestearren, eskaintza behar besteko aurrerapenarekin aurkez dezaten gomendatzen diegu lizitatzaileei.

Lizitazio hau elektronikoa da. Lizitatzaileek elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte, nahitaez, eskaintzak, Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bitartez: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

Horrek zer esan nahi du?

- Lizitatzaileak eskaintzak telematikoki prestatu eta aurkeztu behar dituela.
- Eskaintzak elektronikoki zainduko dituela sistemak.
- Dokumentazioa plataformaren bitartez ireki eta ebaluatuko dela.
- Gutun-azal elektronikoetan sartzen diren **dokumentu guztiek sinadura elektronikoa izan beharko dute**, 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemetako baten bitartez (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Epemuga baino lehen aurkeztu beharreko agiriak: Enpresa lizitatzaileak **hiru gutun-azal elektroniko (A, B eta C)** aurkeztu behar ditu:

- **A gutun-azal elektronikoa: izenburua "Gaitasuna eta Kaudimena" izango du, eta agiri hau sartu behar da barruan: Kontratazio Agiri Europar Bakarraren (KAEB) ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena eta Erantzukizunpeko adierazpena I. ERANSKINA**

KAEBaren formulario normalizatua webgune honetan eskura daiteke elektronikoki bete ahal izateko: *https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/esped/filter?lang=es*
Enpresek formularioaren II., III., IV. (α atala) eta VI. zatiak bete beharko dituzte. Horretarako, Estatuko Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 6ko Ebazpenean jasotako orientabideei jarraitu beharko zaie. Ebazpen horren bitartez, Kontratazio Publikoaren Zuzentarau berrian aurreikusitako Kontratazio Agiri Europar Bakarraren erabilerari buruz Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordeak egindako Gomendioa argitaratu zen (2016ko apirilaren 8ko BOE).

- **B gutun-azal elektronikoa: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA HAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA ETA IV. ERANSKINA, GIZA BALIABIDEEN ATXIKITZEARI ETA BETEARAZPEN-BALDINTZA BEREZIAK BETETZEARI BURUZKOA.**

Basauriko Udalak testu bat emango die lizitatzaileei, euskarara itzul dezaten. Wordeko dokumentu bat izango da, bi zutabetan banatua, eta enpresek ezkerreko zutabean dagoen testua itzulita entregatu beharko dute, PDF formatuan eta digitalki sinatuta.

Testuarekin batera, Udalak laginak baloratzerakoan kontuan hartuko dituen balorazio-irizpideak eta hizkuntza-baremoak emango ditu.

Gainera, aurkeztutako testuak, B gutun-azalean, Udalak aldez aurretik egindako bertsioarekin alderatuko dira.

B gutun-azalean ez da, inolaz ere, eskaintza ekonomikoa sartu behar, ezta eskaintza ekonomikoaren dokumentu garrantzitsurik ere. Eta automatikoki ebaluatu daitezkeen gainerako adjudikazio-irizpideei dagozkien dokumenturik ere ez.

- **C gutun-azal elektronikoa: PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA GAINERAKO IRIZPIDE AUTOMATIKOAK**

II. ERANSKINEAN *(Word dokumentua) ezarritako ereduaren araberakoa* - Zerbitzuaren oinarrizko prezioa eta gainerako irizpide automatikoak.

PROPOSAMENAK AURKEZTEA:

Enpresa lizitatzaileek Kontratazio Publikoa Euskadi-Contratación Pública del Sector Público plataformaren lizitazio elektronikorako aplikazioaren bitartez aurkeztu behar dituzte eskaintza ELEKTRONIKOAK, webgune honetan: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/
Proposamena beste edozein bidetatik aurkeztuz gero, *lizitaziotik kanpo gera daiteke.*

J) **KONTRATAZIO-MAHAIA**

Osaera:

- Mahaiburua: Kontratazioko azpi-arloko ordezkaria, eta horren ordezko izango da Ogasun, Kontratazio eta Ondare arloko ordezkaria.
- Mahaikideak: Udalbatzako idazkaria edo hark eskuordetutako funtzionarioa.
  Kontu-hartzailea edo hark eskuordetutako funtzionarioa.
  Aholkularitza Juridikoaren Saileko titularrak izendatzen duen funtzionarioa.
- Idazkaria: Kontratazio Saileko burua arituko da, edo legez ordezten duena (hitz egiteko eskubidea izango du, baina ezin izango du bozkatu)

Langile adituen batzordea/erakunde tekniko espezializatua: EZ

K) **PROPOSAMENAK IREKITZEKO DATA ETA ORDUA**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa. Karega Goikoa 52. 48970 Basauri (Bizkaia).
Ordua: 09:00
Eguna: Eskaintzak aurkezteko epea bukatu, eta lehenengo eguena. Eskaintzak irekitzeko eguna jaieguna bada, hurrengo lanegunean egingo da.

L) ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

L.1 Automatikoki ebaluatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak	**Gehienez 60 puntu**
1.Prezioa Prezioan aplikatu beharreko balorazio-formula honako hau izango da: i eskaintzaren puntuak = Puntuak guztira x (i eskaintzaren baja / K) %-a Betiere K = HAKLren 85. artikulua aplikatuta ateratzen den zenbatekoari dagokion bajaren %-a, eta, bestela, eskaintza onenaren bajaren %-a; bietatik handiena dena. eta i eskaintzaren bajaren %-a = 100 X (Lizitazio mota – i eskaintza) / Lizitazio mota	Geh. 50 puntu
2.- Zuzendaritza-taldeko persona batek eta/edo koordinazio lanak egingo duen pertsonak genero-berdintasunari buruzko prestakuntza izatea. **Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan erakunde ofizial edo homologatu batek emandako prestakuntza badu eta egiaztatzen badu, puntu hauek lortuko ditu:** **5 ordu edo gutxiagoko prestakuntza: 2 puntu.** **5-10 orduko prestakuntza: 3 puntu.** **10-25 orduko prestakuntza: 7 puntu.**	Geh. 10 puntu

25 ordutik gorako prestakuntza: 10 puntu.	
L.2. Balio-judizio baten bitartez ebaluatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak. Gehienez 40 puntu ***SPKLren 146.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, balorazio globalean onartze aldera, lizitatzaileek gutxieneko puntuazio atalasea lortu beharko dute L2.) irizpideetan; hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 50 lortzen ez duten eskaintzak, eta baztertu egingo dira.***	
1.- Itzulpen-proba. **Basauriko Udalak testu bat emango die lizitatzaileei, euskarara itzul dezaten. Wordeko dokumentu bat izango da, bi zutabetan banatua, eta enpresek ezkerreko zutabean dagoen testua itzulita entregatu beharko dute, PDF formatuan eta digitalki sinatuta. Testuarekin batera, Udalak laginak baloratzerakoan kontuan hartuko dituen balorazio-irizpideak eta hizkuntza-baremoak emango ditu.** **Gainera, aurkeztutako testuak Udalak aldez aurretik egindako bertsioarekin alderatuko dira.**	
EZOHIKO ESKAINTZA BAXUAK SPKLren 149. artikuluan eta APKLAOren 85. eta 86. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.	
N) **BERMEAK** Behin betiko bermea: eskainitako azken prezioaren (BEZik gabe) gaineko % 5.	

O) ADJUDIKAZIOA EGITEKO ETA ENPRESA LIZITATZAILEAK PROPOSAMENEI LOTZEKO GEHIENEKO EPEA

Hiru hilabete, proposamenak irekitzen direnetik aurrera.

P) ESKATUTAKO ASEGURU-KONTRATUAK

Lizitatzaileak nahitaezko aseguruak izan beharko ditu.

Q) ZIGORREN ZENBATEKOA

KONTRATUA BETEARAZTEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratua betearazteko epea betetzen atzeratuz gero, epe osoan zein, hala badagokio, epe partzialetan, administrazioak kontratua bertan behera utzi ahalko du, eta bermea galdu, edo zigorrak ezarri ahalko ditu; zigorrak 0,60 eurokoak izango dira eguneko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko tarte bakoitzeko.

Atzerapenen ondoriozko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiploa lortzen duen aldioro, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo jarraitzea adosteko, zigor berriak ezarriz.

PRESTAZIOEN BETEARAZPEN PARTZIALAK EZ BETETZEA

Kontratistak, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratu honetan definitutako prestazioen betearazpen partzialak betetzen ez baditu, administrazioak aukeratu ahalko du, batetik, kontratua bertan behera uztea, edo, bestetik, kontratuaren prezio osoaren % 10era arteko zigorra ezartzea, BEZik gabe.

KONTRATUA AKATSEKIN BETETZEA

Prestazioa akatsekin betetzen bada, administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10era arteko zigorra ezarri ahalko du, BEZik gabe.

BETEARAZPEN-BALDINTZA BEREZIAK EZ BETETZEA.

Kontratua betearazteko baldintzak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren prezioaren (BEZik gabe) % 10era arteko zigorra ezarri ahal izango du.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK EZ BETETZEA.

Adjudikazio-irizpideetan baloratu diren konpromisoak ez betetzea. Kontratuaren prezioaren (BEZik gabe) % 10era arte.

KONTRATUA GARAIZ EZ SINATZEA ENPRESA ADJUDIKAZIODUNARI LEPORATU DAKIZKIOKEN ARRAZOIAK DIRELA MEDIO: Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZ gabe) % 3 (AKPAren 12.4 klausula)

R) **ORDAINTZEKO MODUA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, egindako lanei dagozkien fakturak aurkeztu behar dira, eta banku-transferentzia bidez ordainduko dira, faktura aurkeztu eta hogeita hamar egunera.

Faktura elektronikoa egin eta bidali behar duten hornitzaileek (alegia, 25/2013 Legean aipatutakoek) Basauriko Udaleko Hornitzaileen Atarian aurkeztu beharko dute faktura elektroniko hori, formatu egituratuan eta aitortutako egiaztagirian oinarritutako sinadura elektroniko aurreratuarekin. Faktura elektronikoa aurkeztu behar ez dutenek, eta, betiere, 5.000 eurorainoko mugarekin, Hornitzailearen Atarian edo Udalaren Sarrera Erregistroan aurkeztu ahal izango dute agiria. Fakturek, bestalde, azaroaren 30eko 1619/2012 EDan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte. Gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte: fakturaren zenbakia eta data; izen-abizenak edo egoitza; IFZ (bai faktura egin behar duenarena, bai jasotzailearena); ondasun edo zerbitzuaren deskribapena; zerga-tasa eta zerga-kuota, eta, hala badagokio, transferentzia egiteko kontu-zenbakia.

Faktura elektronikoek honako datu hauek jaso beharko dituzte, besteak beste:

Kontabilitate-bulegoa: L01480157.
Organo kudeatzailea: L01480157.
Unitate izapidegilea: LA0022615.

Administrazioak dagokion prezioa ordaindu beharko du, egindako prestazioak kontratuan zehaztutakoarekin bat datozela frogatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hogeita hamar egun igaro baino lehen. Nolanahi ere, SPKLren 210. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da, eta, Administrazioa ordainketan atzeratzen bada, epea amaitu ondoko berandutze-interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza-kostuen ordaina ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat (eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen ditu lege horrek) eta SPKLren 198.4 artikuluan xedatu bezalaxe.

S) **KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Hizkuntza-baldintzak

Euskara izango da Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko eta idatzizko harremanetarako hizkuntza, Euskara Saila, kontratuaren arduraduna, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza duen administrazio-atala baita. Beraz, ahozko eta idatzizko komunikazioetan, kontratua gauzatzearekin zerikusia duen guztian, enpresa esleipenduneko langileak euskaraz mintzatuko dira beti.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko baldintzak

Esleipendunak neurri bat ezarri eta aplikatuko du, gutxienez, langileei bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko aukera emango diena; gutxienez, kontratazio honi atxikitako lantaldeko langileei.

Ez dira kontratu-betebehar funtsezkotzat hartzen.

T) **AZPIKONTRATAZIOA**

Enpresa lizitatzailearen betebeharra da eskaintzan adieraztea kontratuaren zein atal azpikontratatuko duen: Bai

U) AURREIKUSITAKO ALDAKETAK: EZ

V) **PRESTAZIOA JASOTZEKO EPEA**

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez hilabeteko epean, modu formal eta positiboan hartuko da.

X) **BERME-EPEA**

Kontratu honen izaera kontuan hartuz, ez da aurreikusi berme-eperik jartzea.

BASAURIKO UDALERAKO ITZULPEN-, ZUZENKETA-, EDUKITZA- ETA INTERPRETAZIO-ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATU BEHARREKO ARAUAK ETA ADJUDIKAZIOA EGITEKO MODUA 13

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA

LIZITAZIO MOTA. GEHIENEZKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....13

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA 14

4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA 14

II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA HORIEK LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

5. – ENPRESA LIZITATZAILEAK 14

6.- LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA 16

7.-DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA 17

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZAK SAILKATZEA; ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA 19

9.- BEHIN BETIKO BERMEA 21

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAPENA 21

IV. **KONTRATUA FORMALIZATZEA**

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO OBLIGAZIOAK 23

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA 23

V. **KONTRATUA BETETZEA**

13.- KONTRATUA BETETZEA 24

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA 32

I. KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATU BEHARREKO ARAUAK ETA ADJUDIKAZIOA EGITEKO MODUA

1.1- Kontratu honen xedea da agiri honen hasierako Ezaugarrien Taulako A) atalean adierazitako hornidura kontratatzea.

1.2.- Zerbitzua eman beharko da agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezartzen denarekin bat.

Ondorio guztietarako, administrazio-klausula partikularren agiri hau, Ezaugarrien Taula, preskripzio teknikoen agiria eta horien eranskinak kontratu-agiriak dira, eta, beraz, alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Gainera, enpresa adjudikaziodunak horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko egintzan, baldintzok onartzen dituela adierazteko.

1.3.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; preskripzio teknikoen agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (SPKL), zeinaren bidez Espainiako antolamendu juridikora ekarri baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak); 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); eta Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.4.- Kontratua prozedura ireki bitartez adjudikatuko da. Prozedura hori SPKLren 156-158. artikuluetan eta HAKLAOn edo horren ordezko arauzko xedapenean dagozkionek arautzen dute.

1.5.- Kasu honetan, kontuan izanik prozedura hau premiazko bidetik izapidetu dela espedientean justifikatutako arrazoiak direla medio, SPKLren 119. artikuluari jarraikiz, izapideak eta epeak murriztu egin dira artikulu horretan zehaztutako moduan.

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO-OINARRIA. GEHIENEZKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

2.1.- Agiri honetako Ezaugarrien Taularen B) atalean zehazten dira kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio-mota.

2.2.- Badago behar besteko kreditua kontratu honetatik Administrazioari sortuko zaizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko; Ezaugarrien Taularen C) ataleko aurrekontu-aplikazioan kontsignatuta dago zenbateko hori.

Adierazten bada gastu-espediente baten izapidetze aurreratua dela, prestazioak egiten hasteko ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta behar bestekoa egotea dagokion ekitaldiko indarreko aurrekontu-taldean.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarritakoa izango da, eta ezingo da izan Administrazioak ezarritako lizitazio-oinarria baino handiagoa.

Ondorio guztietarako, honako hauek sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratua betetzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak; indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko tasa guztiak; eta zerga eta lizentzia guztiak (udalenak, probintziakoak zein Estatukoak).

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio prezioak berrikustea.

4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio-klausula partikularren agiria, preskripzio teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman eskuratu ahal izango dira (Basauriko Udalaren Kontratatzailearen Profiletik ere sar daiteke bertara). SPKLren 138.2 artikuluan adierazitako kasuetan, Udaleko Kontratazio eta Zerbitzu Atalean ere aztertu ahalko da agiri hori, 08:00etatik 15:00etara bitartean, egun baliodunetan, informazioa aipatutako Plataforman argitaratzen den dataren biharamunetik eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

Eskaintzak aurkeztu aurretik, enpresa interesdunak atal horrekin harremanetan jarri ahalko dira, lizitazioaren inguruabar espezifikoen gainean aritzeko.

Enpresa interesdun batek baldintza-agiriei eta gainerako agiri osagarriei buruzko informazio gehigarria eskatzen badu denbora baliodunean, SPKLren 138. artikuluan eta APKLEOren 78. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz eskatzen den informazioa eskaintzak aurkezteko ezarritako epemuga baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko da, baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada, edo kontratazio-organoak, kontratuaren eta prozeduraren inguruabarrak kontuan hartuta, baldintza-agirietan adierazitako aurrerapenarekin.

Baldintza teknikoen agirietan, administrazio-agiri partikularretan edo gainerako dokumentuetan ezarritakoaren inguruko argibideak eskatzen badira, erantzunak lotesleak izango dira, eta Kontratatzailearen Profilean argitaratuko dira.

Era berean, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da kontratuaren espedientearen inguruko informazio guztia eta Administrazioaren kontratu-jardunaren inguruko datu eta informazioa, SPKLren 63. artikuluan xedatu bezalaxe.

Kontratatzailearen profilera sartzeko, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilaren bitartez egingo da (Basauriko Udaleko Kontratatzailearen Profilaren bitartez ere sartu ahal izango da).

II. – ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA HORIEK LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.

5.– ENPRESA LIZITATZAILEAK.

5.1. Kontratuaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek (aurrerago zehaztuko da nola), baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute; kontratatzea debekatuta ez badute, SPKLren 71. artikuluan ezartzen denaren arabera; beren kaudimen ekonomikoa, finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta, SPKLk hala agintzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude.

Gainera, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko eskatutako enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan behar dute.

Bestalde, pertsona juridikoak kontratu baten lizitaziora aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa da kontratuaren prestazioak beren helburuen, xedearen edo jardueren esparruan egotea, alegia, pertsona juridikoaren estatutuekin edo sorrera-arauekin bat etortzea.

Enpresa batek beste erakunde batzuetara jo dezake kontratu bat sinatzeko kaudimena eta gaitasuna egiaztatzeko, erakunde horiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere. Horretarako, baina, frogatu beharko du, batetik, kaudimen eta gaitasun horiek kontratua betetzeko prozesu osoan zehar iraungo dutela; eta, bestetik, beste erakunde horrek ez duela SPKLren 75. artikuluan jasotako kontratatzeko debekurik.

Lizitaziorako berariaz sortutako aldi baterako enpresa-elkarteek ere eskaerak aurkeztu ahalko dituzte, SPKLren 69. artikuluak aukera hori aurreikusten du eta. Elkarteko enpresa bakoitzak bere jarduteko gaitasuna, finantza- eta ekonomia-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo lanbide-gaitasuna egiaztatu beharko ditu, eta, horretarako, hurrengo puntuan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu. Horrez gain, agiri pribatu batean jaso beharko dira honako hauek ere: eskaintza egiten duten enpresen izenak eta gainerako datuak; bakoitzaren partaidetza; eta kontratuaren indarraldian zehar elkartearen ordezkaria izango den pertsona edo erakundea. Bestalde, kideek adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko, adjudikaziodun suertatuz gero. Elkarteko enpresa guztien ordezkariek sinatu behar dute agiri hori.

5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskabidea (eta, hala badagokio, eskaintza) aurkezteak honako hauek ekarriko ditu berekin:

- Baldintza-agiri honetako klausulak eta Ezaugarrien Taulako, preskripzio teknikoen agiriko eta kontratuaren gainerako dokumentuetako zehaztapenak onartzea, oso-osorik eta salbuespenik gabe.

- Aurkeztutako datu guztiak benetakoak direla, eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak kontratatzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen direla jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

- Kontratazio Mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan bildutako datuak aztertzeko.

Ezingo dute prozedura honetan lehiatu, ez zuzenean ez zeharka (lotutako enpresen bidez), kontratu baten zehaztasun teknikoak edo hura prestatzeko agiriak idazten parte hartzen duten enpresek, ez eta kontratazio-prozedura prestatzeko lanetan kontratazio-organoarekin aholkularitza lanetan ibilitakoek ere, baldin eta jardun horren ondorioz lehia faltsutuko bada edo enpresa horiek pribilegiozko tratua jasoko badute.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango du. Era berean, proposamen indibidualak aurkeztu dituztenek ezingo dute beste proposamenik aurkeztu aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa. Arau horiek hautsiz gero, baztertu egingo dira haiek aurkeztutako eskaintza guztiak.

6.- LIZITAZIOAN ONARTZEKO ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintzak Udalaren Kontratazio eta Zerbitzu Atalean aurkeztuko dira. Ezaugarrien taulako i) puntuan xedatutakoaren arabera.

Eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako izangaiek beren eskaintzak egiteko beharrezko informazio guztiaren berri izateko behar bestean, baldintza-agiriei edota dokumentazio

osagarriari buruzko informazio osagarria ezin bada adierazitako datetan eman; edota eskaintzak bakarrik egin badaitezke bertatik bertara bisita egin ostean edota baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa aurretiaz in situ kontsultatu eta gero. Hala xedatzen du SPKLren 136.2 artikuluak (138.3 artikuluari dagokionez).

Lizitatzaileren batek proposamena eta hari erantsitako dokumentazioa postaz bidaltzen baditu, noiz bidali duen egiaztatu beharko du postetxean bertan, eta Administrazioaren Erregistro Orokorrari ere jakinarazi beharko dio eskaintza posta bidez bidali duela; jakinarazpen hori egingo du egun berean, telex, fax edo telegrama bidez. Posta elektroniko bidez ere egin ahalko du jakinarazpena, Ezaugarri Taulako E) atalean jasotako helbidean eta, betiere, HAKLAOren 80. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Baldintza horiek biak bete ezean, ez da onartuko eskabideak aurkezteko data eta orduaren ostean jasotako dokumentazioa. Dena dela, proposamena da onartuko, baldin eta hura ez bada jaso jarritako epea bete eta hurrengo hamar egun naturalak igaro baino lehen.

Eskaintza bat aurkeztu eta gero, hura ezingo da prozeduratik kendu, bidezko arrazoirik tartean ez bada.

Proposamena hainbat enpresak egiten badute eta Enpresen Aldi Baterako Elkarte bat osatzeko konpromisoa hartu badute, enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatu beharko du.

SPKLren 75. artikuluari jarraikiz, enpresak beste enpresa batzuen kaudimena eta baliabideak baliatzen baditu, enpresa horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du Erantzunkizunpeko Adierazpena, kasu horietarako beharrezkoa den informazioa adierazita, eta I. eranskineko EREDUAren arabera.

Lizitaziora ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTE gisa aurkezten diren enpresen kasuan, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte, SPKLren 69.3 artikuluari jarraituta: ABEEa osatzen duten enpresen izena eta ezaugarriak; bakoitzak duen partaidetza; elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarraren izendapena; eta, kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, ABEEa eratzeko konpromisoaren adierazpena.

Europar Batasunak onetsitako KAEB kontratazio-agiri europar bakarraren inprimakiarekin bat eginez, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenak enpresaren, edota, hala badagokio, ABEEren helbidea jaso beharko du, dagozkion jakinarazpenak helbide horretan egin ahal izateko.

Kontratua adjudikatu aurretik, adjudikatu ondoren eta kontratuak dirauen bitartean, Administrazioak egiaztatu ahalko du ea egia den ala ez A gutun-azaleko agirietan jasotakoa, hau da, enpresa adjudikaziodunak kontratatzeko bere gaitasunaz aurkeztutako dokumentazioan eta, behar den kasuetan, Ezaugarrien Taulan gauzatze-baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan adierazitakoa. Datuak gezurrezkoak badira, kontratua deuseztatu ahalko da —kontratistari egotzi ahal zaion hutsegitea baita—, eta behin betiko bermea galtzea ere ekar dezake, edo, bermerik jarri ez bada (edo horrelakorik eratu behar izan ez bada), bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Esandakoaz gain, Administrazioari eragindako kalte-galerak ordaindu beharko zaizkio, konfiskatutako bermea gainditzen duten zenbatekoan.

7.-DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA

7.1.- KONTRATAZIO-MAHAIA. Kontratazio Mahaia eratuko da, jasotzen diren eskaintzak aztertzeko. Ezaugarrien Taulako J) letran ezartzen da nortzuek osatuko duten mahai hori.

7.2.- ESKAINTZAK AZTERTZEA Kontratazio Mahaiak aldez aurretik aztertuko du A gutun-azalen edukia, eta egiaztatuko du lizitatzaileek garaiz eta egokiro aurkeztu dituztela Erantzukizunpeko Adierazpenak ***(KAEB)***. Dokumentuak egiaztatu ahal izateko, gutun-azalak irekitzea aginduko du mahaiburuak. Mahaiak ikusten badu aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, hala jakinaraziko die enpresa interesdunei, eta, gehienez ere, ***hiru egun balioduneko*** epea emango die akatsak zuzentzeko.

Behin erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuta eta, hala badagokio, akatsak edota ez-egiteak zuzenduta, Kontratazio Mahaiak lizitazioan onartutako enpresen berri emango du, berariaz adieraziz zeintzuk baztertu dituzten, eta zergatik.

Hala badagokio, **B gutun-azalak zabalduko ditu** Kontratazio Mahaiak (baldintza teknikoak eta balio-judizio baten arabera haztatutako irizpideei buruzko dokumentazioa). B gutun-azalean aurkeztuko da balore-judizioaren mende dauden irizpideei dagokien dokumentazioa. Gutun-azal horiek ekitaldi publikoan irekiko dira, Basauriko udaletxeko Bilera Aretoan, eskaintzak aurkezteko epea agortu osteko asteartean, 13:00etan. Egun hori jaieguna bada, ekitaldia hurrengo lanegunean egingo da. Dena dela, beharrezkoa ikusten bada gutun-azalak lehenago zabaltzea kontratua lehenbailehen adjudikatzeko, adierazitako data baino lehenago egin ahalko da. Kasua hori bada, iragarkia jarriko da Udalaren Kontratatzailearen Profilean, eta kontratazio-prozedurara aurkeztu diren lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, faxez edo posta elektronikoz. Dokumentazioan zuzendu beharreko akatsak edota ez-egiteak badaude, sei egun balioduneko epea emango du Kontratazio Mahaiak, gehienez ere, horiek konpontzeko.

B gutun-azalak ireki eta gero, dokumentazioa balorazioa egingo duen organoari helaraziko zaio.

Gehienez ere, bi hilabeteko epea egongo da irizpide horiek baloratzeko, gutun-azalak irekitzen diren dataren biharamunetik aurrera.

B gutun-azalak ireki, eta bertako dokumentazioaren balorazioa egin eta gero, **C gutun-azalak irekiko dira**, ekitaldi publikoan, Kontratzailearen Profilean adierazitako egun eta orduan. Eskaintza ekonomikoak eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei buruzko dokumentazioa biltzen dute bigarren gutun-azal horiek.

Prozedura behar bezala burutzen dela bermatzeko, Kontratazio Mahaiak, adjudikazio-proposamena egin aurretik edozein unetan, lizitatzaileei eskatu ahalko die legeek eta baldintza-agiri honek kontratatzeko baldintzak betetzeari buruz eskatutako egiaztagiriak aurkezteko.

Kasua hori denean, adierazitako epean aurkeztu beharko dute lizitatzaileek eskatutako dokumentazioa. Epe hori, gehienez ere, hamar egun baliodunekoa izango da. Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak edota ez-egiteak badaude, horiek zuzentzeko hiru eguneko gehienezko epea emango zaie lizitatzaileei.

Proposamenak aurkezteko epearen bukaeran ebatziko da ea legeak eta baldintza-agiri honek ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez.

Epe horren barruan beharrezko dokumentazioa aurkeztu ez bada, lizitatzailea prozeduratik baztertua izango da.

7.3.- ESKAINTZEN KALIFIKAZIOA.- Eskaintzaren bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio-oinarria gainditzen bada, ezarritako eredua funtsean aldatzen bada, zenbatekoan errore nabarmena badago, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, Kontratazio Mahaiak bertan behera utziko du eskaintza hori, ebazpen arrazoitu bidez (HAKLAO, 84. artikulua).

Zehazkiago, eskaintza lizitaziotik kanpo utziko da balio-judizioaren mende dauden irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun-azal batean aurkezten ez bada.

7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK.- Eskaintzak baxuegiak direla joko da Ezaugarrien Taulako M) atalean zehazten diren parametroekin bat datozen kasuak betetzen dituztenean. Eskaintza horiei dagokienez, SPKLren 149. artikuluan eta HAKLAOren 85. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Kontratazio Mahaiak ikusten badu eskaintza batean ala batzuetan anormaltasunak egon daitezkeela, errekerimendua egingo die eskaintza horiek aurkeztu duten/dituzten enpresari/enpresei. Gehienez ere, 5 egun balioduneko epea emango dio/die, jakinarazpena bidaltzen den datatik zenbatzen hasita, prezio edo kostu baxuen, edota anormaltasuna antzeman den beste edozein parametroren zergatia eta arrazoiak xehe-xehe azal dezan/dezaten. Horretarako, dagokion informazioa eta agiriak aurkeztu beharko ditu/dituzte.

Enpresa lizitatzaileek ezarritako epe barruan aurkeztutako informazio eta dokumentazio guztia ebaluatuko du Kontratazio Mahaiak; eta eskaintza onartzeko ala baztertzeko proposamen arrazoitua helaraziko dio kontratazio-organoari.

Baldin eta, enpresa lizitatzailearen justifikazioa eta bidezko txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratazio-organoak uste badu jasotako informazioak ez duela ondo azaltzen zergatik diren hain baxuak eskainitako prezioak edo kostuak, eta, ondorioz, erabakitzen badu ezarritako balioak akastunak direla eta eskaintza ezin dela bete, lizitaziotik kanpo utziko du enpresa. Oro har, akastuntzat jotzen diren eskaintzak lizitaziotik kanpo utziko dira oinarrian dauden hipotesiak edo jardunak desegokiak badira irizpide teknikoen, ekonomikoen edo juridikoen arabera.

7.5.- ESKAINTZEN EBALUAZIOA.- Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako L) atalean jasotako irizpideetan oinarrituta (duten garrantzi eta haztapenaren arabera, beheranzko hurrenkeran). Era berean, beharrezko ikusten dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu Mahaiak, eta egoki deritzon proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Balorazio-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintza edo gehiago berdinduta badaude, adjudikazioduna izango da SPKLren 147.2 artikuluko irizpide sozialak aplikatzearen ondorioz dagokiona. Ondore horietarako, aintzat hartuko da ea irizpide horiek betetzen diren baldintza-agiri honen Ezaugarrien Taulan eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitzeko unean (I atala).

III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZAK SAILKATZEA; ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

8.1.- Kontratazio Mahaiak, SPKLren 150. artikuluarekin bat, kontratazio-organoari bidaliko dio neurriz kanpokoak edo akastunak izateagatik lizitaziotik kanpo utzi ez diren eskaintzen zerrenda, goitik beherako hurrenkeran sailkatuta. Horrekin batera, adjudikazio-proposamena eta akta ere

bidaliko ditu.

8.2.- Kontratua adjudikatzeko proposatzen den lizitatzaileak, kontratua adjudikatu aurretik, kontratazio-organoan egiaztatu beharko du badauzkala gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten agiriak (administrazio-baldintza partikularren agiriko 8.3 baldintzan eskatutakoak), eta agiriok baliozkoak direla.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean ebatziko da Administrazioarekin kontratatzeko eskatutako gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen ote diren, eta kontratatzeko debekurik ote dagoen. Hala bada, egoerak bere horretan jarraitu beharko du kontratua formalizatzen denean (hau da, une horretan ere baldintza horiek bete beharko dira).

Aurrekoa betetzeko, dagokion zerbitzuak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzaileari eskatuko dio komunikazioa bidaltzen denetik zazpi egun baliodun pasatu baino lehen aurkezteko honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzaileari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluaren 1. zenbakiko a)-tik c)-ra bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak (bestela, baimena eman beharko dio kontratazio-organoari, frogagiriok zuzenean eskuratzeko), bai enpresak berak, bai hark kontratatutako beste enpresek, kontratuaren exekuzioari atxiki beharreko baliabideak badituztela egiaztatzen duen agiria, eta agiri honetako 9. baldintzaren arabera behar den behin betiko bermea eratu izanaren ziurtagiria.

8.3.- 140. artikuluaren 1. zenbakiko a) letratik c) letrara bitarte aipatutako inguruabarren frogagiriak direla-eta (enpresa lizitatzailearenak eta parte hartuko duten besteenak), honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Norberaren izenean edo ahaldundu gisa proposamena aurkezten duenaren Nortasun Agiri Nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten ordezkari gisa dihardutenek, **notario-ahalordea** ere aurkeztu beharko dute. Erakunde honek ahalorde hori askietsiko du, dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa baldin bada, jarduteko gaitasuna egiaztatuko da Merkataritza Erregistroan inskribatutako sorrera- edo aldatze-eskriturak aurkeztuta, baldin eta baldintza hori eskatu beharrekoa bada aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera. Ez bada eskatu beharreko baldintza, eratze-eskritura edo -agiriaren, aldatze-agiriaren, edo estatutu edo sorrera-egintza ofizialaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna. Dena delako agiri horretan jaso beharko da adjudikaziodunaren jarduerari zein arau aplikatzen zaizkion, eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko du.

c) Baldin eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa, eta, hala badagokio, lanbide-gaitasuna ere ezin badira egiaztatu lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial bateko inskripzio-ziurtagiriaren bidez, enpresa lizitatzaileak horren frogagiriak aurkeztu beharko ditu, eta, behar denean, enpresa- edo lanbide-gaikuntzaren frogagiriak ere bai (Ezaugarrien Taulako F) idatz zatian azaltzen dira), Legearen 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Gainera, gutxieneko sailkapen- eta kategoria-talde edo -azpitaldea ere kontuan hartuko da, kontratuaren xedea indarreko sailkapen-talde edo -azpitaldeetako batean baldin badago (horretarako, aintzat hartuko da kontratuaren CPV kodea).

Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean izena emanda dauden enpresa lizitatzaileek ez dute b) eta c) ataletan adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar. Salbuespena

bakarrik dagokie ziurtagiri bitartez egiaztatu daitezkeen gaitasun eta kaudimenari.

Gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrek iraun beharko dute eskaintzak aurkezteko epearen amaiera-datan, eta baita kontratua burutzeko datan ere.

Aldi baterako elkartea eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko ataletan eskatutako dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautotuak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorrita.

SPKLren 65-76 artikuluetan eta 95. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzuak eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagirien eta agirien inguruko argibideak edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahalko die enpresei. Hala eginez gero, enpresek bost egun balioduneko epea izango dute eskaerari erantzuteko, errekerimendua jasotzen duten datatik aurrera.

8.4.- Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Enpresa lizitatzailearen egoitza fiskaleko zerga-administrazioaren egiaztagiria, eta zergapetutako jarduerak egin diren tokietako zerga-administrazioenak. Enpresa lizitatzailea zerga-obligazioetan egunean dagoela jaso beharko dute egiaztagiriok. Merkataritzakoak ez diren sozietateen, edota nortasun juridikorik ez duten erakundeen kasuan, egiaztagiria(k) izango d(ir)a sozietatearen, erakundearen edota establezimenduaren titularrari/titularrei buruzkoa(k).

- Indarreko azken ekitaldian ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, edota zerga horren azken ordainagiria. Horrekin batera, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, eta salbuespenaren arrazoia zehaztu beharko da.

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ziurtagiria, erakunde horretako kuotetan egunean egotea egiaztatzen duena.

Enpresak ez du egiaztatu behar Gizarte Segurantza- eta zerga-betebeharrak betetzen dituela, baldin eta Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko indarreko inskripzio-ziurtagiria badauka eta ziurtagiri horren inguruabarrak aldatu ez badira. Kontratua formalizatzen duen agirian enpresak berariaz adierazi beharko ditu alderdi horiek. Nolanahi ere, ekonomia-jardueren gaineko zergaren matrikulan baja eman ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du lizitatzaileak.

8.5.- Aurreko 8.2 puntuan adierazitakoa ez bada betetzen ezarritako epe barruan, joko da enpresa lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZik gabe), zehapen gisa. Gero, dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapenean hurrengo dagoen enpresa lizitatzaileari.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Eskaintzarik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileak bermea eratu beharko du, eta hura kontratazio-organoaren esku jarri: eskainitako azken prezioaren % 5, gehienez, BEZa kanpo, Ezaugarrien Taularen N) atalean jaso bezalaxe.

9.2.- Administrazioak errekerimendua egingo dio enpresa lizitatzaileari, dagokion behin betiko bermea eratu izanari buruzko egiaztagiriak aurkez ditzan jakinarazpena jasotzen duen dataren biharamunetik hamar egun balioduneko epean.

Baldintza hori bete ezean enpresari egotz dakiokeen arrazoi bategatik, Administrazioak ez dio adjudikatuko kontratua, eta SPKLren 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

9.3.- Bermea eratzeko, SPKLren 108. artikuluan ezarritako bideak erabil daitezke, HAKLAOren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta.

Behin betiko bermeak erantzungo die SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuei. Bermeak itzultzeko eta kitatzeko, SPKLren 111. artikuluan eta HAKLAOren 65. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA

10.1.- Kontratazio-organoak kontratua adjudikatu beharko du adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitatzaileak aurkeztutako dokumentazioa jaso osteko bost egun baliodunetan.

10.2.- Kontratua adjudikatzeko zenbait irizpide erabiltzen direnean, edo bizitza-ziklo merkeenarena bakarrik erabiltzen bada, adjudikazioa egiteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenak zabaltzen diren datatik zenbatzen hasita —ez bada Ezaugarrien Taulan beste epe bat ezarri dela—.

Proposamena gutun-azal batean baino gehiagotan badago, eta gutun-azal horiek ekitaldi independenteetan zabaldu behar badira, aurreko paragrafoan adierazitako epea zenbatuko da A gutun-azala zabaltzen den ekitaldiaren datatik aurrera.

10.3.- Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua eskaintza onena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta; edo kontratua adjudikatu gabe uztea, baldintzen agirietan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago.

Dena dela, Administrazioak, kontratua formalizatu aurretik, hura adjudikatzeari uko egin ahalko dio, interes publikoko arrazoiak direla-eta (SPKLren 152. artikulua). Aukera izango du, era berean, izapidetutako prozeduran atzera egiteko, baldin eta konpondu ezin daitezkeen akatsak badaude. Lizitazioak lizitatzaileei eragindako gastuen konpentsazioa, berriz, Administrazioak finkatuko du, interesdunei entzunaldia eman eta gero eta gastuak justifikatuta egon ostean. Muga, dena dela, 1.000,00 eurokoa izango da.

10.4.- Adjudikazioaren arrazoiak azaldu egin beharko dira. Era berean, enpresa hautagai edo lizitatzaileei adjudikazio horren berri emango zaie, eta, aldi berean, Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, hamabost eguneko epean.

Jakinarazpenak jaso egin beharko du adjudikazio-prozeduran izan diren enpresek adjudikazio-

erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsoa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia. Zehazkiago, honako datu hauek adierazi beharko ditu:

a) Baztertutako enpresen kasuan, horiek bazter uzteko kontuan hartutako arrazoien laburpena.

b) Adjudikazio-prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileen balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).

c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena eta haren eskaintzaren ezaugarri eta abantailak —hain zuzen ere, lizitaziora onartutako gainerako eskaintza guztien artean kontratua berari adjudikatzea eragin dutenak—.

Jakinarazpenean eta Kontratatzailearen Profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLren 153.3 artikuluan ezartzen den bezala.

10.5.- Aurkeztutako eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren eta errekurtsoak aurkezteko epea igarota horrelakorik batere aurkeztu gabe, interesdunen esku geratuko dira eskaintzekin batera aurkeztutako agiriak.

Urtebetean enpresa lizitatzaileek ez badute dokumentazio hori eskatzen, berau suntsitu ahal izango da.

IV. KONTRATUA FORMALIZATZEA

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO OBLIGAZIOAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpena hartu izanaren agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak, kontratua formalizatu aurretik, Ezaugarrien Taulako Q) atalean aipatutako aseguru-kontratuen polizen eta lehen primaren ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek, eta indarrean mantendu kontratuaren iraunaldian eta berme-aldian zehar.

Bermeen aseguruen mugak Administrazioak zehaztuko ditu, kontratatzen den zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta.

11.2.- Kontratua indarrean den artean, kontratazio-organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruen dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak. Eskatu ahalko dio, era berean, frogatzeko primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta, egiten ez badu, kontratazio-organoak obra-ziurtapenen eta/edo fakturen ordainketa eten ahal izango du, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hori ez da konputatuko kalte-ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizuna sor dezake.

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

12.1.- Administrazioarekin egindako kontratuak lizitazioarekin zorrotz-zorrotz bat datorren administrazio-agirian formalizatu beharko dira. Dokumentu hori aski izango da edozein erregistro publikotara sartzeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahalko du kontratua eskritura publikoan

jasotzeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahalko du kontratua eskritura publikoan jasotzeko. Kasu horretan, gastuak bere kontura izango dira Kontratua aldi baterako enpresa-elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresa kideek 12.2 eta 12.3 apartatuetan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute elkartea eskritura publikoan eratu dela. Elkartearen iraupena, bestalde, kontratua azkendu artekoa izango da. Adierazitakoa betetzeaz gain, aldi baterako enpresa-elkartearen IFZ aurkeztu beharko da.

12.2.- Adjudikazioaren kontrako kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu ahal bada, kontratua ezingo da formalizatu enpresa lizitatzaileei adjudikazioari buruzko jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak errekerimendua bidaliko dio enpresa adjudikaziodunari, kontratua formalizatu dezan errekerimendua jasotzen duen dataren biharamunetik bost eguneko epean, gehienez ere —eta, betiere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro bada kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik jarri gabe—. Gauza bera egingo da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etetea indargabetzen duenean.

12.3. – Gainerako kasuetan, kontratua formalizatu beharko da, beranduenez, hamabost egun balioduneko epean, enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

12.4.- Adjudikaziodunari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla-eta adierazitako epean ez bada kontratua formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 itzultzeko eskatuko dio Administrazioak (BEZa kanpo) hari, zehapen gisa. Kopuru hori eskuratzeko, behin betiko bermera joko da lehenbizi (baldin eta hura eratu bada), SPKLren 71.2 b) artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Kasu horretan, eskaintzen zerrendan hurrengo sailkatutako enpresa lizitatzaileari adjudikatuko zaio kontratua, hark agiri honetako 8. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren. Era berean, aurreko apartatuetan ezarritako epeak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragindako kalteen ordaina emango zaio.

12.6.- Ezingo zaio kontratuari ekin hura formalizatu gabe dagoen artean, presazko izapidetzea duten espedienteen kasuan izan ezik.

V. KONTRATUA BETETZEA

13.- KONTRATUA BETETZEA

13.1- BETETZEAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Kontratuaren zuzendariak, zeinak titulazio egoki eta behar bestekoa izango baitu, hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ikuskatu, koordinatu eta zainduko du.

Zuzendariak laguntzaileak izan ditzake bere ardurapean. Laguntzaile horiek beren titulu profesionalaren edo ezagutza espezifikoen arabera ariko dira kontratuaren zuzendariak agindutako lanak egiten.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural igaro baino lehen, kontratazio-organoak

izendatutako zuzendariaren berri emango dio Administrazioak kontratistari, eta zuzendariak gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinaraziko zaizkio enpresa kontratistari.

Kontratua egikaritzeko baldintza berezia izango da SPKLren 216. artikuluak azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzea.

Kontratistak hartuko ditu bere gain kontratua exekutatzeari lotutako arriskuak.

13.2.- **KONTRATUA BETETZEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**

13.2.1.– Lanak egitea. Kontratua agiri honetan ezartzen diren baldintzei zorrotz lotuta bete beharko da, eta, hala badagokio, espedienteari atxikitako zehaztapen teknikoei lotuta ere bai. Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu lanok, eta bere eskumenak egikarituko ditu idatziz zein ahoz.

Kontratistari edota haren ardurapekoei egozgarri zaizkien egite edota ez-egiteen ondorioz kontratua egokiro betetzeko trabak sortzen badira, Administrazioak egoki iritzitako neurriak hartzea eskatu ahalko du, kontratua bete dadila edota gauzak bere onera etor daitezela lortzeko.

Funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira:

- Beharrezko baliabide pertsonal eta/edo materialak esleitzea.

Kontratua bete bitartean, SPKLren 311. artikuluko erantzukizunak izango ditu enpresa kontratistak. Egiaztatzen bada oker, akats tekniko edo desbideratzeren bat dagoela, zuzentzeko espedientea irekiko da, SPKLren 314. eta 315. artikuluetan ezartzen den bezala.

Kontratuko lanak egin bitartean, eta berme-aldia amaitu arte, enpresa kontratistarena izango da sor daitezkeen akats guztien erantzukizuna.

13.2.2.- Lan eta kalteengatiko erantzukizuna. Enpresa adjudikazioduna izango da berak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzulea. Halaber, kontratua betetzean kontratista izango da erantzulea, baldin eta hutsik edo okerrik egiten badu, metodo ezegokia erabiltzen badu edo lanak gaizki egiten baditu, eta, ondorioz, Administrazioak edo hirugarren batek kalteak jasaten badituzte. Hirugarrenei eragindako kalteak, beraz, kontratistaren kontura izango dira.

13.2.3.- **Kontratua betetzeko epeak**. Ezaugarrien Taularen B) atalean ezarritakoa. Luzapena edo luzapenak aurreikusten badira, horiek kontratazio-organoak adostuko ditu, eta bete beharrekoak izango dira enpresariarentzat (baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago abisatzen badiote, gutxienez).

13.3.- **EZINBESTEKO KASUAK**. Ezinbesteko kasuetan, ez bada enpresa kontratistak zuhurtziagabekeriaz jokatu duela, jasandako kalte-galerengatiko indemnizazioa jasotzeko eskubidea izango du.

Ezinbesteko kasuak izango dira SPKLren 239. artikuluan araututakoak. Kasu horiek, bestalde,

HAKLAOren 146. artikuluan xedatutakoari jarraituta izapidetuko dira.

13.4.- **ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA TXARTO EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK EDO ATZERATZEAGATIK**. Kontratuaren xedea txarto egiten bada, kontratua betetzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehaztutako prestazioetako baten betetze partziala egiten ez badu hari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango zaio, Ezaugarrien Taulako Q) atalean hala ezartzen bada.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua betetzeko epea eta Administrazioak ezarritako epe partzialak bete beharko ditu**.**

Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epe horietako bat berari egotz dakiokeen arrazoi batengatik, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo zehapen ekonomikoa ezartzea. Zehapenen zenbatekoak Ezaugarrien Taulako Q) atalean finkatutakoak dira.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratista berandutzen bada, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

Zehapenak ezarri behar badira, kontratazio-organoaren ebazpen bidez egingo da. Zehapenak ezartzeko prozedurak, bestalde, honako jarduketa hauek aurreikusten ditu:

a) Kontratuaren arduradunaren txostena, antzemandako ez-betetzeak jasoko dituena eta zehapenaren zenbatekoa proposatuko duena.

b) Kontratistari entzunaldia ematea hamar (10) egun balioduneko epean, egoki iritzitako alegazioak egin ditzan.

c) Txosten juridikoa, kontratista kontra agertzen bada.

d) Kontratazio-organoaren ebazpena, zehapena jasotzeko modua finkatuko duena.

13.5.- **KALTE-GALERAK.**

Honako kasu hauetan, Administrazioak kalte-galerak eskatuko dizkio enpresa kontratistari: kontratuaren zati bat bete ez bada; kontratua akatsekin bete bada; betetzea atzeratu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada, edo horregatik ezarri beharreko zehapenarekin ez badira Administrazioari egindako kalte guztiak ordaintzen.

13.6.- **KONTRATATUTAKO LANARI BURUZKO ARAU OROKORRAK**.

13.6.1.- Kontratistak zerbitzua edo prestazioa behar bezala eta kontratuan ezarritako epeen barruan emateko beharrezko ekipo eta bitarteko guztiak jarri beharko ditu.

Administrazioak, bestalde, osagai bat ezegokia dela uste badu, hura baztertu ahalko du. Ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkeztu ahalko du kontratistak, hamar egun naturaleko epean, jakinarazpenaren datatik aurrera.

13.6.2.- Zerbitzuari atxikitako langileak enpresa adjudikaziodunaren mendekoak izango dira bakar-bakarrik. Hark baino ez ditu izango enplegatzaileari dagozkion eskubide eta betebeharrak. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

1.- Enpresa adjudikaziodunarena bakarrik izango da langileak hautatzeko ardura.

Eskatutako titulazio eta lan-eskarmentua duten langileak baino ezin izango dituzte hautatu, eta, langile horiek, kontratua betetzeari atxikitako lantaldean egongo dira. Administrazioak, dena dela, egiaztatu ahal izango du langileok lehenago aipatutako baldintzak betetzen dituztela.

2.- Enpresa adjudikaziodunak ahaleginak egingo ditu lantaldean egonkortasuna egoteko, alegia, osaketan eman daitezkeen aldaketak unean unekoak izateko eta bidezko arrazoiengatik bakarrik emateko (helburua da zerbitzuaren funtzionamendu ona ez asaldatzea). Bestalde, aldaketarik egin behar izanez gero, adjudikaziodunak Administrazioari horien berri eman beharko die, beti.

3.- Enpresa adjudikaziodunak modu erreal, eraginkor eta jarraituan egikarituko du enpresa orori dagokion zuzentzeko eskumena, kontratua betetzeko ardura duen lantaldeko kideen gainean. Zehazkiago, enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko du soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; langileak ordezkatzea, haiek baja hartu edo huts egiten duten kasuetan; Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, hala dagokionean kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne; lan-arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak; diziplina-ahalmena erabiltzea; eta alderdi enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratorritako beste eskubide eta betebehar guztiak.

4.- Enpresa adjudikaziodunak bereziki zaindu behar du kontratua betetzeari atxikitako langileek beren jarduera baldintza-agirietan jasotako kontratuaren xedeari estu-estu lotuta egitea.

5.- Enpresa adjudikaziodunak koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du gutxienez, bere plantillakoa. Koordinatzaile horrek betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

a) Administrazioarekin enpresa adjudikaziodunaren ordezkari solaskide gisa jardutea, enpresa adjudikaziodunaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen, eta «erakunde kontratatzailea»ren arteko komunikazioa bideratzeko, kontratua betetzeari lotutako kontu guztiei dagokienez.

b) Lana banatzea kontratua betetzeko ardura duten langileen artean; eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezko lan-agindu eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeko langileek esleituta dauzkaten eginkizunak zuzen betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lanera doazela kontrolatzea.

d) Kontratua betetzeari atxikitako langileen oporrak antolatzea. Behar bezala koordinatu beharko dira enpresa adjudikazioduna eta Administrazioa, zerbitzua behar bezala emateko.

e) Kontratua betetzeari atxikitako lantaldearen osaketan izandako aldaketa guztiak jakinaraztea Administrazioari, unean unekoak nahiz iraunkorrak izan.

13.6.3.- Lanen jabetza. Egindako lanak, edozein fasetan egiten direla ere, Administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta, beraz, hark edozein unetan eskatu ahalko du prestazioen zati bat bere esku jartzeko, baldin eta hori behin betiko lan-egitarauarekin bat badator eta lanak behar

bezala egitea eragozten ez badu.

13.6.4.- Bermearen araua. Enpresa adjudikaziodunak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak bete ez, eta, ondorioz, Administrazioa zigortzen badute enpresa kontratistarekin batera modu solidarioan kopuru batzuk ordaintzera, Administrazioak ordaindutakoa enpresa adjudikaziodunari jasanaraziko zaio. Horretarako, ordaindutako kopuruak osorik berreskuratu arte egoki eta komenigarriak diren akzio administratibo eta judizial guztiak erabiltzeko aukera izango du Administrazioak.

13.7.- **LAN AKASTUNAK EDO TXARTO EGINDAKOAK**

13.7.1.- Enpresa kontratistak erantzungo du kontratatutako lanak ondo eginda egoteaz eta lan horiek izan ditzaketen akatsez, nahiz eta Administrazioaren ordezkariak, egiaztapen, balorazio edo ziurtapen partzialetan, lan horiek ikuskatu edo egiaztatu izan berauek egiten ari ziren bitartean.

13.7.2.- Lan akastuna edo txarto egindakoa Administrazioak berak emandako agindu baten ondorio zuzena bada, kontratistak ez du erantzukizunik izango.

13.7.3.- Administrazioak uste badu ez direla bete kontratuko baldintza teknikoak, HAKLAOren 203. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Eta hitzartutako lanak ez baditu berau onartzeko baldintzak betetzen, HAKLAOren 204. artikuluan eta agiri honetako 13.14 klausulan xedatutakoa aplikatuko da.

13.8.- **ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI**. Kontratuaren prezioa ezaugarrien taulako S) puntuan ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Lanak baloratuko dira HAKLAOren 199. eta 200. artikuluetan xedatzen denaren arabera.

13.9.- **ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAKIZKIOKEEN GASTUAK**.
Kontratu honen araubide juridikoaren ondoriozko betebehar orokorrez gain, honako betebehar espezifiko hauek ere izango ditu kontratistak:

a) **INGURUMENA, ALOR SOZIALA ETA LAN-ALORRA**. Enpresa kontratistak ingurumenaren alorrean, eremu sozialean eta lan-eremuan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, hain zuzen ere, honako hauetan ezarrita daudenak: Europar Batasuneko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan, eta, bereziki, SPKLren V. eranskinean.

Zehazkiago:

1. Prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, dagokion hitzarmen kolektiboan edo lan-ordenantzan ezarritako xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak.

2. Enpresak lan-arriskuen prebentziorako beharrezko edo derrigorrezko neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudiak laneko arriskuak saihesteko ezarritako betebeharrak bete behar ditu, eta honako betebehar hauek ere bete dituela frogatu behar du, kontratatutako jarduerari ekin aurretik:

- Kontratatutako jarduerari dagokion arriskua ebaluatzea eta dagokion prebentzio-jardueraren plangintza egitea.

- Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.

- Beharrezkoak diren babes-ekipamenduak eman direlako egiaztagiria izatea.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatzen baditu, adierazitako betebehar horien egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratistei, eta administrazio kontratatzaileari eman. Gainera, segurtasun- eta osasun-koordinatzaileei azpikontratazio horien berri eman beharko diete enpresek, lanei ekin aurretik.

4. Langileek, lanean ari direla, istripua izan edo kalteren bat jasaten badute, adjudikaziodunak indarreko arauek xedatzen dutena bete behar du, bere erantzukizunpean. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango.

5. Ezaugarrien Taulan hala ezarriz gero —Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eragin orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batek agintzen duelako— , enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan, eragindako langileei dagokienez.

6. Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 44. artikuluak xedatutakoa aplikatzearen kalterik gabe (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Testu Bategin hori), kontratista izango da subrogazioak eragindako langileei ordaintzen ez zaizkien soldaten erantzulea, bai eta haien Gizarte Segurantzaren kotizazioena ere. Hori halaxe izango da, kontratua suntsiarazi eta kontratatzaile berriak langile horiek hartzen baditu ere: obligazio hori lehengo kontratistarena izango da, ez berriarena. Kasua hori denean, Administrazioak, soldatak ordaindu gabe daudela ziurtatu eta gero, kontratistari dagozkion zenbatekoak atxikiko dizkio, horiek pagatzeko; eta ez dio behin betiko bermea itzuliko, kontratistak soldatak ordaindu dituela egiaztatu arte.

b) **KONTRATUA BETETZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK**. Kontratistak ordainduko ditu lizentzia, agiri edo erakunde ofizial edo banakoen edozein informazio eskuratzeagatiko gastuak. Zerga, eskubide, tasa, konpentsazio edo indarrean diren xedapenen aplikazioak dakartzan gastu eta kargak ere haren kontura izango dira, xedapen horiek berek zehaztutako moduan eta zenbatekoan.

Enpresa adjudikaziodunari dagokio prestazioa emateko beharrezko baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala ofizialak nola banakoenak.

c) **LANKIDETZA ADMINISTRAZIO KONTRATATZAILEAREKIN**. Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko Administrazioak beharrezko iritzitako zerbitzu profesionalak eman beharko zaizkio, gainkosturik gabe: argibideak emateko bileretara joatea, jendaurreko informazioa ematea eta abar.

d) **HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK**. Enpresa adjudikaziodunak eta balizko enpresa azpikontratistak, kontratua betetzean, aintzat hartu beharko dute euskara eta gaztelania, biak direla hizkuntza ofizialak. Eta, beren jardueran, elebitasun-irizpideak eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuta ariko dira, horrela agintzen baitute 10/1982 Legeak, Euskaren Erabilera Arautzeko Oinarrizkoak, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen

duenak, eta euskararen erabilerari buruzko Basauriko Udalaren Araudiak.

13.10.- **KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK**. Enpresa kontratista adjudikaziodunak erantzuna eman beharko die Basauriko Udalaren Gardentasun, Herritarren parte-hartze eta Gobernu Onerako Araudiaren I. tituluko betebeharrak betetzeko Administrazioak egindako informazio-errekerimenduei. Eta, kontratua betetzean, honako hauek aplikatu beharko ditu: batetik, kontratuaren xedeari lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak (Ezaugarri Taularen S) atalean jasotakoak), eta, bestetik, baldintza teknikoen agiriak adierazitakoak.

13.11.- **KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA**. Kontratua lagatzeari dagokionez, SPKLren 214. artikuluak xedatutakoa aplikatuko da. Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren zati bat hirugarrenekin kontratatzen badu, berriz, SPKLren 215. artikuluko baldintzak bete beharko ditu. Azpikontratatutako enpresei eta enpresa hornitzaileei ordaintzeko, bestalde, SPKLren 216. artikuluari jarraituko dio.

Enpresa lizitatzaileek, eskaintzan, adierazi beharko dute zein zati azpikontratatzea aurreikusi duten, zati horren zenbatekoa eta azpikontratatu nahi den enpresaren izena edo enpresa-profila (haren kaudimen profesional edo teknikoan oinarrituta).

Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta, gehienez ere, kontratua gauzatzen hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela. Era berean, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatuko duen, nor den enpresa azpikontratistaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta zeintzuk diren harremanetarako datuak. Horrez gain, frogatu egin beharko du azpikontratistak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu teknikoei, giza baliabideei eta eskarmentuari dagokionez; eta egiaztatu egin beharko du hark ez duela kontratatzeko debekurik. Informazio hori guztia aldatu egiten bada kontratu nagusia gauzatzerako, horren berri eman beharko du adjudikaziodunak, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.

13.12.- **KONTRATUA ALDATZEA**. Kontratu hau bakarrik aldatu ahalko da interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan ezartzen den kasuetan eta moduan eta SPKLren 207. artikuluan araututako prozedurari jarraituta.

Kasu horietan, kontratazio-organoak ezarritako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat. Salbuespenez, 205. artikuluan zehazten diren kontratu-aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, baldin eta banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa (BEZik gabe) % 20 baino gehiago aldatzen ez badute.

13.13.- **KONTRATUA ETETEA**. SPKLren 208. artikuluan eta HAKLAOren 103. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

Kontratua aldi batez edo behin betiko eteten bada, zati batean edo osorik, etete-akta egingo da, zeinak honako datu hauek jaso beharko baititu: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia; etetea eragin duten inguruabarrak; kontratuaren exekuzioa zertan den, eta eteteak ukitutako prestazio-zatia(k).

Etetea egitea erabaki eta gero, enpresa kontratistari eragindako kalte-galerak ordainduko dizkio Administrazioak, SPKLren 208.2 artikuluko arauekin bat.

13.14.- **PRESTAZIOA JASOTZEA**. Kontratua jasoko da SPKLren 210. eta 311. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

13.14.1.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela joko da prestazioa oso-osorik bete duenean, kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta, betiere, Administrazioa ados badago.

Kontratua bete egin dela argi uzteko, Administrazioak berau jasotzeko edota bere adostasuna adierazteko egintza formal eta positiboa egin beharko du. Hilabeteko epea izango du horretarako, kontratuaren xedea eskuratu edo gauzatu denetik hasita.

Kontratazio-organoak erabakiko du, SPKLren 190. eta 191. artikuluetako ahalak baliatuta, ea kontratistak emandako prestazioa kontratua exekutatzeko eta betetzeko ezarritako zehaztapenekin bat datorren ala ez; eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauza eta bete ditzala eta prestazioak jasotzerakoan ikusi dituen akatsak zuzen ditzala eskatuko dio kontratistari. Enpresa kontratistaren utzikeriagatik edo akatsengatik egindako lanak ez badatoz bat kontratatutakoarekin, Administrazioak uko egin ahal izango dio kontratua onartzeari. Kasua hori bada, ez du ordaindu beharrik izango, eta, gainera, ordaindutako prezioa berreskuratu ahalko du.

13.14.2.- Harrera-akta egiten denetik hogeita hamar egun igaro baino lehen, kontratuaren likidazioa egin, enpresa kontratistari jakinarazi, eta likidazioaren kopurua ordaindu beharko zaio.

13.15.- **BERME-ALDIA**. 6 hilabete, lanen harrera egin zen egunetik aurrera kontatzen hasita. Bermealdian ikusten bada egindako lanetan akatsak daudela, kontratistari akatsak zuzen ditzan eskatzeko eskubidea izango du kontratazio-organoak.

13.16.- **KONTRATUA SUNTSIARAZTEA**. Kontratua suntsiaraziko da SPKLren 211. eta 313. artikuluetan aurreikusitako kasuetan. Suntsiarazte hori kontratazio-organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazteak, bestalde, SPKLren 212., 213. eta 313. artikuluetan jasotako ondorioak sortuko ditu.

Ez bada Ezaugarrien Taulako Q) atalean kontratua ez betetzeagatiko zehapenak ezarri direla, taula horretako S) atalean jasotako exekuzio-baldintza bereziak kontratuaren nahitaezko betebeharrak izango dira, SPKLren 211.f) artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako.

Era berean, ondorio horietarako, kontratuaren funtsezko betebehartzat hartuko da Ezaugarrien Taulan eskatzen diren giza baliabide edo baliabide material nahikoak atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsiarazten bada, hari behin betiko bermea atxikiko zaio. Bermea ez bada aski Administrazioari eragindako kalteak ordaintzeko, kalte-galerengatiko ordaina ere eskatuko zaio adjudikaziodunari.

13.17.- **KONFIDENTZIALTASUNA**.

<u>Konfidentzialtasunaren betebeharra:</u>

Kontratistak kontratua betearaztean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta informazio hori konfidentzialtzat jo bada baldintza-agirietan edo kontratuan, edo informazio motagatik halakotzat tratatu behar bada. Betebehar horri bost urtez eutsiko zaio, informazio horren berri izan denetik aurrera.

Kontratazio Organoak ezin izango du zabaldu enpresek konfidentzialtzat jo duten informaziorik. Ondorio horietarako, lizitatzaileek konfidentzialtzat jo duten dokumentazioa jasotzen

duen zerrenda bat sartu beharko dute gutun-azal bakoitzean, kontuan izanik konfidentzialtasunak ezin diola eragin proposamen osoari, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zein diren, haien ustez, konfidentzialtzat jo behar diren dokumentuak, sekretu teknikoei edo komertzialei buruzkoak direlako, eta inguruabar hori argi eta garbi adierazi beharko da, bazterrean edo beste edozein modutan, dokumentuan bertan.

Datu pertsonalak babestea:

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarriarekin bat etorriz, datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek oso-osorik errespetatu beharko dituzte honako arau hauek: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzkoa; Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO); 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta arlo horretan indarrean dauden gainerako arauak.

Kontratistak ez ditu datu pertsonalak kontratu honetan agertzen ez diren helburuetarako erabiliko, hau da, zerbitzuaren erabiltzaileei prozesu aurreko eremuan aholkularitza eta informazio juridikoa emateko soilik erabiliko ditu.

Kontratista eta bere langileak behartuta daude DBEOren 5.1.f) artikuluan aipatzen den konfidentzialtasun-betebeharra betetzera eta sekretu profesionala gordetzera kontratua betearazteagatik jakin ditzakeen datu pertsonalei dagokienez, eta betebehar horiek kontratua amaitu ondoren ere iraungo dute, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DPBEDBLO) 5. artikuluari jarraikiz.

Kontratazioak berekin badakar kontratistak datu pertsonalak eskuratzea, eta datu horien tratamenduaren arduraduna erakunde kontratatzailea bada, kontratista izango da tratamenduaren eragilea, dagokion tratamendu-mandatuaren kontratua sinatuta. Kasu horretan, datu horiek eskuratzea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, baldin eta DBEOren 28. artikuluan eta DPBEDBLOren 33. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Artikulu horien arabera, tratamendu-eragileak:

a) Arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak, baita hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen diren datu pertsonalen kasuan ere, noiz eta ez dagoen horretara behartuta eragileari aplikagarria zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez; kasu horretan, tratamenduaren aurreko lege-betebehar horren jakitun ipiniko du eragileak arduraduna, salbu eta zuzenbide horrek debekatu egiten badu, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio.

b) Bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonek konpromisoa izango dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko edo konfidentzialtasunari buruzko estatutu-betebehar baten mende daudela.

c) DBEOren 32. artikuluaren arabera beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu.

d) Beste tratamendu-eragile batengana jotzeko DBEOren 28. artikuluko 2. eta 4. zenbakietan adierazitako eskakizunak errespetatuko ditu.

e) Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzakoen bitartez, DBEOan ezarritako interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.

f) Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari DBEOren 32.etik 36.era bitarteko artikuluak betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.

g) Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopiak ezabatuko ditu, noiz eta Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak kontserbatzea eskatzen. Datuak ez dira suntsituko haiek gordetzeko agintzen duen lege-aurreikuspena badago; kasu horretan, arduradunari itzuli beharko zaizkio, eta berak bermatuko du datuak gordetzen direla aurreikuspen horrek indarrean jarraitzen duen bitartean. Tratamendu-eragileak datuak gorde ahalko ditu, behar bezala blokeatuta, tratamenduaren arduradunarekin izandako harremanagatik erantzukizunen bat egon daitekeen bitartean.

h) DBEOn ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.

13.18 GIZARTE- ETA LAN-BETEBEHARRAK.

Kontratista behartuta dago lan-arloan, gizarte-segurantzari dagokionez eta lan-arriskuen prebentzioari dagokionez indarrean dagoen araudia betetzera, betiere honako hauetan xedatutakoari jarraikiz: Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean; Prebentzio-zerbitzuen Araudia onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1197 Errege Dekretuan, baita kontratua betearazten den bitartean ematen diren arauetan ere.

Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa den 3/2016 Legearen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera:

1.- Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko hainbat xedapen, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

2.- Adjudikaziodunak hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, soldata hura baino txikiagoa izan.

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Administrazio-klausula partikularren agiri honen eta espedienteari atxikitako gainerako dokumentu teknikoen arteko kontraesanik sortuz gero, agiri honetan jasotakoa gailenduko da.

Kontratazio-organoak eskubidea du administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratuak

betetzeak eragindako zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiak direla-eta kontratuak aldatzeko, kontratua betetzearen ondorioz enpresa kontratistari egozgarri zaion erantzukizuna aitortzeko, kontratuak suntsiarazteko eta suntsiarazte horren ondorioak zehazteko. Hori guztia egin ahalko du, betiere, SPKLn eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartu zuen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak aintzat hartuta.

Era berean, kontratazio-organoak eskumena du enpresa kontratistek kontratua bete bitartean egindako jarduerak ikuskatzeko, lehenago aipatutako legean ezarritako baldintza eta mugekin.

Kontratazio-organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko duen ahalmenez baliatuta emandako erabakiak berehala bete beharko dira.

14.2.- Kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu kontratu honen interpretazioaren, aldaketaren, suntsiaraztearen eta ondorioen gainean sortutako auziak. Haren erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta, beraz, erabaki horien kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrita eta kontuan izanda interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar dezaketela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusi bezalaxe.

14.3.- SPKLren 44.2 artikuluan zehaztutako egintzei buruz, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izango da. Euskal Autonomia Erkidegoko kontratu-errekurtsoen administrazio-organoari dagokio errekurtso berezi horiek aztertzea eta ebaztea.